



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2021EKO OTSAILAREN 25EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2021eko urtarrilaren 25ean, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: M^a Mar Ansorena, Santos Etxegia, Olatz Dorai, Julen Beunza, Ricardo Arangoa.

BERTARATU EZ DIRENAK: Xabier Azpiroz.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Urtarrilaren 28an egindako batzarreko akta emailaz helarazi zaie zinegotziei eta aho batez onartzen dute bildutakoek aurreko batzarreko akta.

2.- Alkate ebazpenak

Alkateak ondoren transkribatzen diren ebazpenak irakurtzen ditu.

-2021/6 alkate ebazpena onartuz Zulaga Obra eta Proiektuak empresak aurkeztutako aurrekontua, eskolan eta Ttikiena haur eskolan ateak kendu eta berriak jartzeko, guztira 5.155 eurokoa BEZ kanpo, Alkateak azaltzen du lapurtzera sartu zirenean ateak hautsi zituztela eta asegoroaren bidez konponduko dira.

-2021/7 alkate ebazpena baimena ematea Basaburua Imotz Kirol Batzordeari 2021eko martxoaren 6an eskolako patioa erabiltzea duatloia ospatzeko. Julen Beunzak azaltzen du azkenean ez dela eskolako patioa erabiliko.

- 2021/8 alkate ebazpena onartuz Oyana aulkiaren 5 unitate erostea, beltza kolorezkoak, guztira 876,80 eurokoa BEZ kanpoko kostarioarekin.

-2021/9 alkate ebazpena Sisnet empresak aurkeztutako aitorten arduratsua onartuz, Berueteko hirigunetik, antenaraino mikrozanga egiteko, fibraren azpiegiturarako obrarako, aurrekontua 2.000 eurokoa izanik.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte orain harte onartutako ebazpenak.

Gai ordenetik kanpo badaude beste bi gai aztertzeko eta bildutakoek aho batez onartzen dute bi gai horiek presazkoak izanik gai ordenean sartzea...

2020 aurrekontu aldaketak. Behin Betiko onespena.

Alkateak azaltzen du abenduko batzarrean onartu zirela hasiera batez 2020/1 eta 2020/2 aurrekontu aldaketak, ondoren 1998/270 Foru Dekretuaren 33. Artikuluaren arabera, NAO n argitaratu ondoren 15 egun baliodunen epean egon da jendeaurrean alegazioak jartzeko aukera irekiz.

Aurrekontu aldaketa hauen funtsa lehenengo aurrekontua aldaketaren kasuan Arraratsko kontzejuari ordaindu beharreko 2.689 euro ur hornidura sarearen proiektuaren gastua aurrekontuan sartzeko onartu zen 2020/1 aurrekontu aldaketa.

Bigarren aurrekontu aldaketa aldiz gizarte zerbitzuetako partiden aurreikuspenak gainditu zirelako onartu beharra zegoen.

Aipatutako poltsan oraindik onartu gabe agertzen dira gastu bezala, lan babestuaren 2. zatia hots 1580 euro inguru eta etxez etxeko zerbitzuarena, aurreko urtean 7000 euro ingurukoa izan zen. Hortaz bi gastu hauek kontutan hartzen badira poltsan beharko litzatekeen erabilgarria 8600 euro ingurukoa izanen litzateke.

Aipatutako soberakina aurreko aurrekontu aldaketaren kasuan egin den bezala, kreditu transferentzi bidez hartu zen 1.9.6 inbertsioen poltsatik, bertan oraindik 18.354 euroko erabilgarria utzita.

Hau guztia kontutan hartuta eta 1998/270 Foru Dekretuaren 33. Artikulua jarraituz bildutakoek aho batez onartzen dute ondoren transkribatzen den akordioa:

- **Behin betikoz onartzea 2020/1 eta 2020/2 aurrekontu aldaketak eta akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu.**

Gai ordenean sartu beharreko gaia ogasun batzordean aztertu den diru laguntza deialdiaren onspena da, ostalaritza sektoreari zuzendua.

Ostalaritzarako diru laguntza deialdia.

Alkateak azaltzen du ogasun batzordean aztertu zela diru laguntza lerro hau onartzea, kontutan hartuta ostalaritzak aurreko urteko martxotik galerak izan dituela, koronabirusaren ondorioz izan diren itxierak eta murrizketengatik. Deialdia ondoko baldintzetan oinarrituko da:

BALDINTZAK

Ostalaritza iharduera burutzea.

Basaburuko udalean altan egotea JEZ- zergan ostalaritzaren epigrafea, zehaztuko dira deialdian jatetxe eta sagardotegiak altan dauden epigrafeak.

Basaburuko udalarekin zorrik ez izatea 2020ko abenduaren 31eko datarekin.

ZENBATEKOA

Diru laguntza , 1.000 eurokoa izango da eta modu zuzenean jasoko dute eskatzaileek goian aipatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

ESKAERA EGITEKO EPEA

Eskaera egiteko epea hilabetekoa izango da, argitaratzen denetik. Argitalpena, bando bidez, web orrian, kontzejuen taldean eta udal tabloian iragarkia jarriz egingo da.

Eskaera Basaburuko Udalean aurkeztu beharko da, bulegoko ordutegian astelenetik ostiralera 9:30etatiik 13:30etara, aurretik telefonoz hitzordua eskatuz.

Eskaera berezia prestatuko da bertan eskatzaileek adierazi ahalko dute, udalaria baimena emanaz bere datuak egiaztatzeko eta ez badu baimentzen, beraiek dokumentazioa aurkeztuko du. Modu berean eskaera emailez edo egoitza elektronikotik aurkeztu ahalko dute ere eskatzaileek.

ESKABIDEEN AZTERKETA

Basaburuko udaleko batzarrak finkatutako epean aurkeztu diren eskaerak aztertu eta alkate ebazpen bidez onartu eta ordainduko dira.

Alkateak deialdia irakurri ondoren Basaburuko batzarrak aho batez onartzen du argitaratzea agindu, bando bidez, web orrian, tabloian eta kontzejuen taldearen bidez.

3.- Mozioak.

Martxoaren 8an ospatzen den Nazioarteko Emakumearen Egunaren inguruan bi adierazpen iritsi dira onartzeko, lehena EH Bildukoa eta bigarrena Ultzamako Gizarte Zerbitzuko Mankomunitatetik

Alkateak irakurtzen du lehenengo mozioa:

“Duela ia urtebete gure jendartea eta bizitzeko moduak astintzen zituen COVID19ak eragindako pandemiak , inoiz ez bezala. Krisi multidimentsional eta sistemiko bat bizi dugu, aurrekaririk gabekoa, lehendik zetozen beste krisi batzuekin gurutzatzen eta lotzen den krisia, hala nola krisi ekologikoa eta zaintzen krisiekin.

Pandemiak agerian utzi du gordinki feminismitik aspaldi aldarrikatzen ari zena: bizitza zaurgarria eta dependientea da, eko eta interdependentea. Ezerk ez du bizitzaren zaintza baino garrantzitsuagoa izan behar, pandemiarekin muturreraino ahuldu eta prekarizatu den bizitza. Bizitzari baldintza duin eta justuetan eustearen aldeko apustu

erradikala egiteko unea da: horrek begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan, dagoeneko egiaztatuta baitago emakumeek eta neskek eragin negatiboagoa izan dutela krisi honetan, batez ere krisira zaurgarritasun edo diskriminazio handieneko egoeran sartu zirentzat.

Eraldaketa erradikalak behar ditugu, feminismoak ozen dio aspaldi. Gure gizarteak justizian eta demokrazian aurrera egin dezan, erdigunean erreproduktzio sozial jasangarria jar dezaten politika publikoak behar ditugu, kapital-metaketa baztertuz, zeinak gizarte-gehiengoen bizi-baldintzak prekarioagoak bihurtzen baititu, merkantilizatu egiten baitu eta natura ustiatzen baitu, belaunaldi berrien etorkizuna arriskuan jarriz. Eta orain, krisi honek desberdintasunak areagotzea eta emakumeen eskubideetan atzerapena eragin ez dezan, are premiazkoagoa da genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala txertatzen duten neurri feministak hartzea.

Hilabete hauetan genero-desberdintasun estrukturalen gorakada errealtate ukalezina da: emakumeek beren gain hartu dute zaintzen karga gehiena, ordaindua eta ordaindu gabea; lana galdu edo lan-baldintza are prekarizatuagoak ezarri dizkiete; birusa hartzeko arrisku handiagoa dute, genero-ikuspegiarekin ikertu gabe jarraitzen zuten bitartean; indarkeria matxista areagotu egin da, hari aurre egiteko baliabideak eta baldintza materialak mugatzen ziren bitartean; beste behar batzuk baztertu egin dira, hala nola sexu- eta ugalketa-osasuna edo osasun mentalarekin lotuak; parte-hartze soziopolitikorako aukera eta baldintzak galdu dituzte, etab.: azken batean, eta batez ere kolektibo zaurgarrienetako emakumeei dagokienez, pobretu dira zentzu guztietan, indarkeriaren aurrean babesgabeago daude, haien osasuna okertu egin da, zaintza-lanen zama handiagoa da...

Irtenbidea ez da pandemiaren aurreko egoerara itzultzea, emakume gehienek lehenago ere bizi baitzuten diskriminazioa eta eskubideen urraketa: orain da unea pandemian areagotutako larrialdiei erantzuna emateko, eta, aldi berean, guztiontzako bizitza duina bermatzea eta zaintzea lehentasuntzat joko duen antolaketa sozial, ekologiko eta ekonomikoko sistema baterantzko oinarri sendoak ezartzeko.

Publikotik krisi honi egoki erantzungo dioten erantzun integralak premiazkoak dira, esparru eta maila guztietan, globaletik tokikoraino eta alderantziz. Euskal Herrian, gure eskumen-esparru mugatuan, argi daukagu gure lurraldeetan gure bizitzaren burujabe ez garen bitartean ezin izango ditugula beharrezko aldaketa guztiak bultzatu: hala ere, badaude aukerak bide hori marrazten joateko, sisteman pitzadurak irekitzeko, eta, hain zuzen ere, tokikoa da eremu egokiena. Azken hilabeteetan Euskal Herriko hainbat udalerritan bultzatu diren zaintzako ekimen publiko-komunitarioak eredu ezin hobea dira.

Horretarako, erakundeak koordinatu behar dira, eta bideak ireki herritarrek erabaki publikoetan benetan eta eraginkortasunez parte har dezaten, batez ere emakume-talde anitzek eta mugimendu feministak. Behar bezala aurre egin behar diogu daukagun erantzukizun publiko handiari, eta hori premisa feministetatik egin behar da, artikulazioa eta parte-hartzea bultzatuz, plan eta programa eraldatzaileak eginez, larrialdiei arreta emanez eta behar diren baliabide guztiak ahalbidetuz.

Ez dago aitzakiarik: ez argazkirik ez adierazpen hutsik martxoaren 8aren atarian gaudelako. Egun honek udal honek politika publiko-komunitario feministekin duen

konpromisoa berresteko balio behar du, krisiaren ondoriozko larrialdiei erantzuteko eta erdigunean bizitza zainduko duen gizarte-eredu baterantz joateko.

Horregatik guztiagatik, Basaburuko Udalak honako hau erabaki du:

COVID19aren ondorioak eta kolektibo eta pertsona ahulenen egoera eta beharrak aztertzea, besteak beste: bakarrik bizi diren adinekoak (nagusiki isolatuak bizi direnak eta emakumeak), guraso bakarreko amak, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak eta haurrak, kalean dauden pertsonak, familia-eremuko zaintzaileak (ordainduak eta ez ordainduak), emakume langabeak, etab. Ikuspegi feminista eta tokiko eragile sozialen parte-hartzea bermatu beharko da, bereziki emakume eta feministena.

Errealitate horren eta identifikatutako beharren aurrean, premiazko ekintza eta neurri sorta bat identifikatzea eta plangintza batean jasotzea, baliabideak, kronograma eta arduradunak zehatzuz eta herritarren parte-hartzea bermatuz, bereziki emakumeen kolektiboena, bai diseinuan, bai jarraipenean eta ebaluazioan. Mota honetakoak izan daitezke, besteak beste:

- Kolektibo zaugarriari arreta emateko eredia eta funtzionamendua berrikustea, pertsona / kolektiboen mota zein emandako zerbitzuen funtzionamendua eta edukia zabaltzeko, ikuspegi feminista eta ahalduztze-ikuspegitik, adibidez: adineko pertsonak (bereziki bakarrik bizi direnak eta emakumeak), familia kalteberak, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak eta haurrak, etxeko langileak, ordaindu gabeko zaintzaileak familia-eremuan, etorri berriak (egindako azterketaren eta gure errealitatearen arabera)...*
- Premia horiei behar bezala erantzungo dieten zerbitzuak eta baliabideak identifikatzea eta abian jartzea: bakarrik bizi diren adinekoei jarraipen zuzena, etxebizitza-baliabideak erraztea (alokairu soziala, etxebizitza komunitarioak), etxez etxeko laguntza-zerbitzua indartzea eta egokitzea, zainketekin lotutako erabilera komunitariorako udal-espazioak egokitzea, indarkeriaren biktimentzako baliabide berriak, ezohiko diru-laguntzak eta/edo laguntza ekonomiko osagarriak, etab.*
- Zaintzaileen baldintzak (ordainduak eta ez ordainduak) duintzeko ekintzak: informazioa, aholkularitza, eredu kooperatiboak bultzatzeko laguntza-ildoak, etab.*

Emakume, nerabe eta neskatoen ahalduztze indibidual eta kolektiborako ekintzak bultzatzea, kolektibo feministen eskutik.

Gure herriko emakumeen ehun-soziala indartzea, premisa feministetatik eta ahalduztze-premisetatik.

Tokiko zaintza sare komunitarioei babesa eta baliabideak ematea.

Zaintza-lanen balio sozial eta politikoa aitortzen duten komunikazio-kanpainak egitea, erantzunkidetasunari arreta berezia eskainiz eta etxeko langileenak bezalako errealitateak ikusaraziz.

Premisa feministetatik abiatuta, zaintzei buruzko herri eztabaida-guneak irekitzea, askotariko kolektibo sozial, administrazioa eta gure udalerrian dauden beste sektore batzuk inplikatur, eta zaintzen erantzunkidetasunerako tokiko itun bat bultzatzea.

Harrera publiko-komunitarioko programak sustatzea iritsi berriak diren pertsonentzat, tokiko eragile sozialen parte-hartzearekin eta kolektibo ahulenei arreta berezia jarritz, genero-ikuspegia aplikatuz.

Zeharka, identifikatu diren Udalerriko emakume zein kolektibo feministek parte hartzeko bideak irekiko dira, identifikatu diren jarduera guztien diseinutik ebaluazioraino parte hartu ahal izateko, euren iritzia kontuan hartuz.”

Bildutakoek mozioa onartzea erabaki dute baina kontutan hartuta Basaburuko Udalak ez dituela eskakizun batzuk egiteko ahalbideak, mozio honen jakinarazpena Ultzamako Gizarte Zerbitzuetara helaraziko da bertan kontutan hartu dezaten eta hango Berdintasun Teknikariaren bitartez ahalbidetzea.

Bigarren adierazpena aipatu bezala Ultzamako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatetik bidali dute eta honakoa da:

“Krisi sanitario, sozial eta ekonomiko honek agerian utzi du pertsona eta bizitza guztiak balioetsiko dituen eredu ekonomiko eta sozial baten alde lan egiteko beharra. Horixe da ekonomia feministaren zutabeetako bat. Abiapuntua, jasangarritasunarekin zerikusi gutxi duten gizarte- eta ingurumen-mailako ondorio ugari sortzen dituen eredu ekonomikoari alternatibak eskaintzeko.

Garapen ekonomikoak garapen soziala eta ingurumen-oreka behar dituelako.

Azken urte honetan, pandemiak eragindako egoerak are ageriago utzi du gizakion zaurgarritasuna.

Zaintza-lanen krisi honek dagokien balioa emateko beharra erakusten du, den-denok zaintzeko eta zainduak izateko beharra dugulako gure bizitzetan zehar. Horrez gain, ingurunea zaintzea beharrezkoa da bizigarria eta osasungarria izan dadin, ekodependenteak eta interdependenteak baikara.

Horregatik, zaintza-lanek bizitzaren biziraupenerako duten garrantzia aitortzen badugu, zaintzeko betebeharra aitortuko dugu, eta horrekin batera, honek dakarren lana banatzeko beharra zaintzalanak modu justuan eta erantzunkidean gara daitezen. Hala ere, zaintza-lanekin lotutako lanak eta enpleguak emakumeen esku egon izan dira historikoki, eta hala jarraitzen dute, ikusezin eta gutxietsiak. Emakumeendako lan handia dakar horrek, lanaldi bikoitzak eta hirukoitzak, kasu askotan irabazi ekonomikorik gabe. Horregatik hitz egiten da “pobreziaren feminizazioa”

kontzeptuaz, emakumeek askoz gutxiago daukatelako ekonomikoki eta zaintza-lanak haien gain hartzeak ondorioak dituelako emakumeen bizi-proiektuetan (lan-prekarietatea, mendekotasun ekonomikoa, pentsio txikiagoak, inpaktu emozionala...).

Errealitate horren aurrean, Toki-erakundeek politikak garatu dituzte egoera hori aldatzeko. Hasiera batean, bateragarritasunerako neurri eta baliabideekin, Toki Itunen programaren bidez, eta, gaur megun, planteamendu berriak txertatuz zaintza-lanak ikusarazteko eta erantzunkidetasuna sustatzeko, horiek baitira emakume eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiteko funtsezko ardatzak.

Zaintzarik gabe ez dago bizitzarik, eta bizitzarik gabe ezin da garapenik egon. Zentzu horretan beharrezkoa da planteamendu horiei guztiei balioa ematea eta txertatzea garapen ekonomiko eta sozialari lotutako etorkizuneko politikak diseinatzeaz arduratzen diren agenda publikoetan.

Horregatik guztiagatik, toki-erakunde garen aldetik, HONAKO KONPROMISO HAUEK adierazi nahi ditugu:

- **Bizitzaren jasagarritasuna** politika publikoen **erdigunean** jartzea, eta lehentasunezko lanildo gisa sartzea Udaleko agenda politikoan eta tokiko garapena sustatzen duten ekintzen diseinuan.
- **Ikusaraztea eta balioestea bizitzaren jasagarritasuna ahalbidetzen duten eta nagusiki emakumeek egiten dituzten zaintza-lanak.**
- **Herritarrak sentsibilizatzea banaketa justua eta bidezkoa lortzeko, familietan zaintza-lanen erantzunkidetasuna sustatuz.**
- **Aitortzea mugimendu feministak** arlo honetan egindako ekarpenak eta lana.”

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako adierazpena.

4- Batzordeen informazioa.

Gizarte Batzordea. M^a Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Martxoaren 5ean emakumeen nazioarteko egunaren ospakizunen baitan Pantxika Lamurren antzezlanaren eginen da Apeztegi berriko ganbaran. Izena eman beharko da aforoa bermatu harte.

Garapen Batzordea. Ricardo Arangoak ematen du informazioa.

Mimukai proiektuarekin lotuta 1 bilera egin da Leitzak, proiektua aurkezteko hango ekoizle eta herritarrei, Mimukai proiektua garapen era eraldatzeko gunea izango da, bertan coworking gune bat egongo da, alokatzeko bulegoak, enplegu zerbitzua, garapen agentziaren bulegoa, eta abar eta beste zonalde batean obradorea edo ekoizteko gunea. Zonalde hau egokitzeko ekoizleek adierazten dituzten beharrak kontutan hartuko dira. Basaburuan martxoaren 11ean izango da bilera, 1 sektorea eta herritarrei bideratua.

Garapenarekin lotuta ere alkateak adierazten du iharduera ekonomikoen gunea sortzeko tramitazioa orain Nafar Gobernuaren esku dagoela, beraiek onartu behar dutelako behin betikoz lurraren kalifikazio aldaketa.

Proiektuarekin aurrera egiteko ondoren hainbat tramitazio urbanistiko egin behar dira, plan partziala eta birzatiketa eta urbanizazio proiektuak. Herritarrei proiektua aurkezteko bilerak antolatuko dira eta poligonoan zerbait egiteko interesa dute enpresa edo autonomoekin bilera zuzenak.

Kirol Batzordea. Julen Beunzak ematen du informazioa.

Martxoaren 6an Duatloi proba egingo da.

Kultura Batzordea. Olatz Doraik ematen du informazioa.

Martxoaren 20an Apeztegi berriko ganbaran Bideak dokumentala eskainiko da, hasieran Asier Juanbeltz eta Manu Alvarezek hitzaldi txiki bat emango dute eta ondoren zuzendariak eta Aritz Ganboak hitz egingo dute.

Kontzejuan Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa

Baserrien identifikazio proiektua lantzen ari da kontzejuetako alkateekin.

5- Informazio orokorra.

Ez dago.

6. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:10 ak direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.